

Guztiok, beharrezkoa dute ikaskuntza. Guk hau funtsezko jardueratzat dugu. Izan ere, pertsona bakoitzak dituen aukerak kontuan izanik, egunerokotasunean hobetzen, besteekin elkar-bizitzen eta jarduera partekatuetan parte hartzen ikasiko dute gutekin. Gehitzekoa da ere, metodologia aktiboak, kooperatiboak edo proiektuetan oinarritutakoak erabiltzeak zailtasun gehien dituzten ikasleen parte-hartzea eta bizikidetza ere errazten dutela. Ondorioz, hau bultzatzea espero dugu.

Ikasle guztien hezkuntzan garrantzi izugarria izan dezaketen beste jarduera batzuk aurkeztu ditugu. Aipagarria da baserri honetan leku zabala dagoela eta gauza desberdin eta aktibitate desberdinak egin daitezkeela. Animaliak izango ditugu eta hauen bidez ikasiko dute umeak. Beti hezitzaile baten ardurapean egongo dira. Baserrira heltzeko aukera desberdinak eskainiko ditugu, hau da, guk ipiniko ditugu garraiobideak eta Gernikatik irtengo gara ordu zehatz batean. Orain, jarduera berean lankideekin parte hartzean jartzen da enfasia, gizarte-harremanak, aitortzea eta bizikidetza errazteko, horiekin parte-hartzaile guztien ikaskuntzan ere laguntzen ari da.

Jolas inklusiboek irisgarritasun-irizpideak jasotzen dituzte, haurrek modu seguruan jolastu ahal izateko bermatuz. Irizpide hauek lirstezke kontuan hartutakoak: egoera fisikoa, sentsoriala edo kognitiboa, hizkuntzaren garapena eta garapenaren etapak.

Hori esanda, haur guztien artean modu dibertigarri, dinamiko eta organikoan integratzeko eta jolasteko interakzio-aukerak aurreikusten dira. Honek, haur guztiak elkarrekin jolastea bermatzeaz gain, konfiantza, lankidetzaren etabar garatzen ditu.

Zalantzarik gabe, espazio inklusiboak sortzea oso zeregin garrantzitsua da hirien eta espazio publiko eta pribatuaren plangintzarako, gizartearen garapenean laguntzen baitute, gizarteratzea eta aniztasuna funtsezko gaiak izanik.

Gure ikasketa eta esperientziei esker ondorioztatu dugu, umeen gaitasunak ez direla nahiko garatzen, horregatik, hainbat arlo landuko ditugu bakoitzak bere trebetasunak garatzeko aukera izan dezaten. Gure gizarteak produzitzeko hezitzen gaitu eta ez dio tokirik ematen emozioen munduari... Lan handia egin behar dugu sentimenduei buruzko heziketa eskaintzeko, gaur egun, esparru honetan dugun heziketaren oinarria oso eskasa delako oraindik.

Alderdi kooperatiboa hurrekin lantzeari dagokionez, garrantzitsua da; izan ere, metodo egokia da gurasoek eta irakasleek hurrekin duten nortasunaren garapenean hain

garrantzitsuak diren alderdiak lantzeko, hala nola enpatia, besteei laguntzea, antolaketa, koordinazioa, gatazken konponketa edo erabakiak hartzea.

Garapen kognitiboa, haur batek arrazoitzen, arazoak konpontzen eta kontzienteki pentsatzen ikasteko prozesua da. Garapen kognitiboari esker, eskolaurreko adinean dauden 3 eta 4 urte bitarteko haurrek beren galderak egin ditzakete inguruko munduari buruz eta nola funtzionatzen duen.

Hizkuntzaren funtzio nagusia komunikazioa da. Gizakiok ezinbesteko beharra dugu harremanak izateko, eta hori posible da hizkuntzari esker. Komunikazio-prozesu horretan, gizarte-komunikaziorako eta -harremanetarako tresna erabakigarria da hizketa.

Jolas inklusiboen funtzioaren zati bat esperientzia anitzak eskaintzea da, ondoren datorren taulan bezala, jarduera interaktiboen bost aukera ikus ditzakegu. Horrela, proiektuak esperientzia aberasgarriak eskaintzen ditu zentzu guztietan.

EMOZIOAK	SENTIMENDUAK	KOOPERAZIOA	GARAPEN KOGNITIBOA	HIZKETAREN ETA HIZKUNTZAREN GARAPENA
-Musika eta kantua -lpuinak kontatu -Margolan libreak	-Musika eta kantua -Antzerkiak -Lehen eta azken gutuna	-Mahai- jokoak -Animaliak kortara sartu -Konfiantza ariketak -Txingak	-Eguzki erloju baten erabilera landu -Txori kabi bat sortu -Satorra -Zarataren soinuak entzun	-Hizkuntzak alderatu -Abestiak ingeleses/euskaraz abestu zein dantzatu